





BERRITZEKO — AUKERA

Testuak: Josu Artutxa Dorronsoro eta Ataria. **Argazkiak:** Josu Artutxa Dorronsoro, Eneko Garin arkitektura-argazkilaria eta Ataria.



OSTEGUNA, 2020KO UZTAILAK 9

Argitaratzailea:

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM

Lege Gordailua: SS-1323-2013

Koordinatzailea:

Rebeka Calvo Gonzalez.

Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete.

Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.

Telefonoa: 943 65 56 95.

E-posta: ataria@ataria.eus

Publizitatea: 661 678 818.publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus

Villabona-Aiztondo: 687 410 022.

villabona-aiztondo@ataria.eus

Anoetaledea: 687 410 022.

anoetaldea@ataria.eus

Ibarraldea: 687 410 118.

ibarraldea@ataria.eus

Alegialdea: 687 410 034.

alegialdea@ataria.eus

Kirolak: 673 06 11 32. kirolak@ataria.eus

Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Energia kontsumoa murriztea, jasangarriagoak izatea edota estetika hutsa zaintzea. Hamaika arrazoi egon daitezke etxebizitzari buelta bat emateko. Eta moduak ere milaka: leihoak aldatu daitezke, etxebizitza edo lokal bateko gelak moldatu, berriz ere margotu, altzari edo etxetresnak aldatu...

Daukazuna aldatu dezakezu, moldatu, berarrantolatu, birsortu. Eskualdean horretarako aukera dago, asko dira horretan aritzen diren profesionalak.

Baina bada berritzeko beste modurik ere. Etxebizitza zaharra atzean utzi, eta berria erosi daiteke, edota proiektu berriak abiarazteko leku aproposak bilatu. Horretarako ere badago aukera.

COVID-19ak eragozpenak sortu ditu eta eguneroko martxari eustea nekeza izan daiteke. Baina aldi berean proiektu berriak abiarazteko pizgarria izan daiteke, horretarako ere baliatu ahal da egoera berri hau.

Bakoitzaren hautua daukaguna aldatu, berritu edo eraldatzea izan, edota orain artekoa atzean utzi eta berria bilatzea izan, etorkizunari begiratzeko ordua da, eta horretarako segurtasuna da ezinbestekoa. Eta segurtasuna eta babesa ematen dutenak ere eskura daude gurean. Modu atsegin eta adeitsuan laguntzeko eta aholkatzeko prest daudenak ere aurkituko ditugu eskualdean.

Berritzeko hamaika aukera daude eta berri-zen laguntzeko profesionalak eskura daude. Ez galdu aukera.



01

**GORRITI
LEIHOAK**



ESPERIENTZIAREN BERMEA

Hasiera-hasieratik bi izan dira Gorriti Martinez-en ibilbidea gidatu duten premisak: kalitatea eta zerbitzua. Premisa horiek leihoen salmenta eta instalatze lanetan munduko erreferentziazko enpresa bihurtu dute Gorriti Martinez. Enpresak bilakaera bat izan du eta gaur egun bezeroari kalitate gorena eta zerbitzu profesionala ematen diote. Sektorea ezagutzen du eta horregatik azken material, teknika eta muntaketa moduak erabiltzen ditu, sortzen diren berrikuntzei adi egoten baita beti.

Gorriti Martinez-eko langileak kualifikatuena dira eta bezeroen eskakizunetara ondoen egokitzen den irtenbidea gomendatzeko egiten dute lan. Zalanza edo eskaera guztiak pertsonalki lantzen dituzte eta etxeraino joaten dira, bezero bakoitzaren kasua aztertu eta 24 ordutan bere beharretara egokitutako doako aurrekontua egiteko.

OBRA BERRIA

Asko eta asko dira Gipuzkoako lurraldean etxebizitzak egiteko Martinez Gorritirekin lan egiten duten eraikuntza enpresak eta profesionalak. Emai-

tzak lortzeko duen ahalmena, sail teknikoaren eraginkortasuna eta produktuaren kalitatea dira bere ikurrak, eta profesionalak kalitatezko leihoak eta kanpo-itxiturak aukeratzerakoan kontuan hartzen dituzten ezaugarriak dira.

ERABERRITZEA

Eraberritzeetan ere esperientzia zabala du eta emaitzarik onena lortzeko sektoreko instalatzaile-talderik finenak ditu. Goi-mailako profesionalak ditu, ez bakarrik muntaketan, baita igeltserotzan ere, bezeroaren arreta eta garbitasuna ahaztu gabe. Horri esker, edozein lan-motari ekin ahal diote berme guztiekin. Muntaketa-arduradun batek egunero gainbegiratzen ditu lanak, bezeroaren eta enpresaren eskakizunen arabera egiten direla egiaztatzeko.

ALUMINIOA ZEIN EGURRA

CORTIZO eta TECHNAL aluminiozko leihoak dituzte, linea garbi eta estilizatuak eskainiz. 54 mm-tik 80 mm-ra arteko sekzioak eta orri ezkutuko leihoak dituzte, baita bezero bakoitzaren gustuak asetzeko eskaintza zabala ere.

gorriti | martínez

San Frantzisko pasealekua 14, Tolosa

Tel: 943 650 192

www.gorritimartinez.com



PVC



ALUMINIOA



EGURRA



BERROBIN

BIZITZEN ARI GAREN GARAIETAKO ETXEBIZITZA EZIN HOBEAK

TERRAZA ZORAGARRIAK, 2 ETA 3 LOGELAKO ETXEBIZITZAK, HERRI ERDIAN BISTA EZIN HOBEAK. LASAIA ETA EGUZKITSUA

OTEGUI ERAIKUNTZAK
BIZKAI KALEA 2, BEHEA - TOLOSA
TEL. 943 67 21 72 - 608 77 28 01
otegui@oteguieraikuntzak.com



KALITATEAN LIDERRAK ERAIKUNTZA ETA AZPIEGITURETAN

Eraikuntzaren eta industria-galdaragintzaren hainbat arlotan espezializatutako diziplina anitzeko taldea: eraikuntza metalikoak, galdaragintza, errezel-hormak eta aluminiozko leihoak oro har. Horiek guztiak industiarako, obra berrirako eta partikularrentzako.

© Irudia: Jorge Allende



02

LIZASO ASEGURU- ARTEKARITZA

KONFIANTZAK ELKARTZEN GAITU



Helbidea: Lopez Mendizabal kalea, 3, Tolosa
Telefono zenbakia: 943 65 53 27 **Webgunea:** www.lizaso.es
Facebook: Lizaso Aseguru-Artekaritza

30 urte baino gehiagoko esperientzia du Lizaso Aseguru-Artekaritza enpresak. Familiako negozioa izanik, gaur egun, bigarren belaunaldia arduratzen da aseguruaren kudeaketaz. 6 lagunek osatzen dute eta talde gaztea da. «Bezero askorentzat sektore ezezaguna da, ezjakintasunagatik, asko erreparatzen diote prezioari. Hala ere, horren atzean kontuan hartu beharreko gauza gehiago daude. Bezero gehienak oso eza-

gunak dira; hori dela eta, ingurukoekin dugun gertutasuna, gardentasuna eta konfiantza dira gure indarguneak. Harreman guztietan, segurtasun handia eskaintzen dugu».

Aseguru mota ugari eskaintzen dituzte. «Ez gara soilik etxebizitzaren, jabeen erkidegoen edota autoen arriskuez arduratzen. Besteak beste, osasun aseguruak edota bizitza aseguruak ere kudeatzen ditugu». Aholkularitza zerbitzua ere eskaintzen dute. «Ez ditugu aseguruak saltzen, aholkatu baizik». Gainera, erlazioa gertukoa eta pertsonala izan arren, App bat ere badute, bezeroek informazio guztia eskura izan dezaten.

Batez ere, bertako autonomo zein enpresa txiki eta ertainentzat (ETE) egiten dute lan. «Bezeroen babes osoa eta dituzten behar guztiak kudeatzen ditugu, merkatuan bilatzen dutena eskainiz. Independenteki egiten dugu lan, baina asoziazio baten barruan gaudenez, nahiz eta guk zuzenean babestea ez lortu, beti dugu norbaitengana joan eta babes hori eskatzeko aukera. Beraiei ahalik eta zerbitzu onena eman ahal izateko, lehen leerroan, kalitate oneneko hornitzaileak izatea nahi dugu».

Bezeroentzako erabateko prestutasuna da, langileen iritziz, enpresaren ezaugarri bereizgarrienetako bat. «Dirua alperrik ez xahutzeaz gain, denboran aurrezteak edota kezkak uxatzea ere ahalbidetzen dugu. Ezohiko egoera honetan izugarri eskertu dute gure presentzia, geldirik egon direlako».



San Frantzisko ibiltokia 25, Tolosa
 943 655 515 - 626 636 138
www.inmouribe.com



IKAZTEGIETA, etxebizitza handia, 2 fatxada eta terraza ditu. 170.000 euro.



AMEZKETA, 47.600 metro koadro dituen baseria.



TOLOSALDEA, 3.000 metro koadroko lursail urbanoa, 2 etxe familiabakar eraiki daitezke. 130.000 euro.



LIZARTZA, estreinatzeko; pisu ederra, garaje-plaza eta trastelekua. 230.000 euro.



TOLOSA, 92 metro koadroko pisu altu eta eguzkitsua Gipuzkoa plazan. 255.000 euro.



TOLOSA, USABAL, 500 metro koadro dituen pabiloia. 10 T garabia du, eta 48 metroko luzera eta 10,40 metroko zabalera ditu. 420.000 euro.

www.inmouribe.com

EGOKITZEKO LAGUNTZAK

Eusko Jaurlaritzak etxebizitzak berritzeko Renove plana abiarazten du urtero. Etxebizitzen edota eraikinen energia-eraginkortasuna hobetzen laguntzea da helburua, baina baita neurri berean irisgarritasuna hobetzea, gizartearen kohesioa indartzea eta lanpostuak sortzeko pizgarria sortzea ere.

Gizartean geroz eta ozenago entzuten dira herri, auzo edo eremuen hiri-gintza eredia aldatu beharraz diharduten mezuak. Jada eraikita dauden eremuetan eragin beharraz hitz egiten da, eta horregatik jartzen da azpimarra birgaitzean. Hiria oin berriko eraikinak eginez handitzearen eta zabaltzearen kultura amaitu beharko litzatekeela ari da zabaltzen, eta erakundeak oraingo eraikinak eta espazio finkatuak birgaitzeari, berritzeari eta zaharberritzeri heltzeko pizgarriak ematen hasiak dira jada.

ENERGIA-ERAGINKORTASUNA

Bide horretan lan lerro desberdinak jorratzen dituzte. Eta horietako bat da energia-eraginkortasuna lortzeko bideratzen diren laguntzena. Izan ere, etxebizitzaren gabezia handiena energia-eraginkortasunarekin du zerikusia. Egoera horri buelta emateko Europa 2020 estrategiaren barruan kokatzen dute Etxebizitzaren Birgaitze Renove Plana.

Karbono kontsumo baxua izango duen etorkizuna eraikitzeko konpromisoak hartu dituzte, helburua CO2 isuriak %20 murriztea izanik. Etxebidaren ustez, energia-kontsumoa %20 murriztu beharko litzateke eta energia bererabilgarriak %20 igo.

IRISGARritasuna

Irisgarritasuna da bideratu beharreko beste gabeziarik bat. Eraikinen % 34 bakarrik dira irisgarriak eta igogailua % 24k bakarrik dute, 2011ko eroldaren arabera.

Horregatik, hiri-birgaitze politika berri bat ezartzea premiazkoa dela uste du Eusko Jaurlaritzak, bai etxebizitzak bai eraikinak eta haien ingurua irisgarri egiten laguntzeko. Hobekuntza horiek adineko pertsonen eta mugitzeko arazoak dituzten pertsonen eguneroko bizitzan ezinbestekoak dira.



GIZARTE-KOHESIOA

Gizarte-kohesioa da Renove planarekin bultzatu nahi den beste helburuetako bat. Narriatuta dauden eta sozialki ahulak diren hiri-eremuetan esku hartzeak egin behar direla uste du Eusko Jaurlaritzak, eremu horiek herrietan edo hirietan barneratuz.

Azken finean, birgaitze-politika berriak ikuspegi integratua izan behar duela izan dio Jaurlaritzak; «hau da, energia-eraginkortasuna eta irisgarritasun unibertsala hobetzeaz gain, gizarte-laguntza bildu behar du». Guzti honen enplegua sortzen lagundu nahi da ere.

Beraz, Etxebizitzak Birgaitzeko aldirako Renove Planak enplegua sortzeko, energia aurrezteko eta gizarte-kohesioa bultzatzeko estrategia indartuko du, birgaitze jasangarriaren eta integratzailearen aldeko politika baten bitartez.

ETXETRESNA ETA LEIHOAK

Eraikinetako birgaitze lanekin batera, Eusko Jaurlaritzak energia kontsumo txikiko etxetresnak eta leihoak aldatzeko laguntzak emango ditu. Diru laguntzak eskatzeko epea zabalik dago jada eta EEE Energiaren Euskal Erakundearen bitartez egin dute.

Diru laguntza lerro hauek Covid-19aren ondorioei aurre egiteko neurri ekonomiko egokia delakoan abiarazi ditzuztela esan dute. Etxebizitza alo-



rrean, energiaren aurrezpenean sakondu nahi dute, 2030eko Euskadiko Energia Estrategiaren helburuekin bat eginik, eta aldi berean, ekonomia suspertzeko planen barruan, eraginkortasun handiko ekipamenduaren merkatua dinamizatu nahi dute.

EEE Energiaren Euskal Erakundeak sustatutako diru laguntza plan hauek herritarrei soilik daude zuzenduta, partikularrei, ohiko okupazioko etxebizitzaren jabeei, gozamendun edo errentari diren pertsoneri, eta horietan leihoak ordezkatzeko edota etxetresna elektriko berriak jartzeko asmotan badira.

Renove biek aurrekontu bera dute, 2,5 milioi euro; diru kantitate horri esker, 2.000 leiho aldaketan laguntzea aurreikusten dute, isolamendu handikoei sarbidea emanez etxebizitzetan, eta 25.000 etxetresna elektriko inguru ordezkatzeko ahalbidetuko da, eta hartara, energia-eraginkortasun handiko tresnak merkaturatuz (A++ eta A+++ mailakoak).

Diru laguntza eskaerak modu telematikoa bideratuko dira, Energiaren Euskal Erakundeak berariaz egokitutako aplikazioaren bidez, haren webgunean (www.eve.eus), eta behar bezala bete eta formalizatutako dokumentazioa jasotakoaren hurrenkerari edo ordenari jarraituz emango dituzte.

Kanpaina honekin bat egin nahi duten saltokietako arduradunek eskura izango dute identifikatzeko material ugari, haien dendetan kartel eta es-

kuorri informatiboak erakusteko eta banatzeko. Diru laguntzak kudeatzeko onespena ematen duten dendek, aldatzera doan etxetresna erretiratzeko konpromisoa hartu beharko du.

LEIHOEN RENOVE PLANA

Diru laguntzaz baliatzeko leihoak eta ate-leihoak etxebizitzaren kanpoko itxituren zati izan behar dute eta energia-eraginkortasun handiko estandarrek eduki behar dituzte.

Etxebizitza eta onuradun bakoitzeko gehieneko zenbatekoa 1.500 eurokoa izango da gehienez eta diru laguntza hau bateragarria izango da helburu bera duten beste plan batzuekin, baldin eta salmenta azken prezioak (SAP) ez badu %65a gainditzen.

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN RENOVE PLANA

Energia-eraginkortasun handia duten etxetresnak erosteko diru laguntza eskatu ahal izango dira ere, betiere tresna zaharrak behar bezala birziklatzea ahalbideratuz. Onuradun bakoitzeko eta etxetresnako gehieneko diru laguntzak ez du salmenta azken prezioa (SAP), BEZa barne, %25a gaindituko, eta pertsona berak ezin izango du diru laguntza bat baino gehiago jaso etxetresna mota berdinagatik. Etxetresna bakoitzarengatik 130 eta 100 euro arteko laguntzak aurreikusi dituzte.


ANOETA ITURTXULO

**28 ETXEBIZITZA, GARAJE ETA
TRASTELEKU
2 ETA 3 LOGELAKO ETXEBIZITZA
PAREGABEAK**

**GARAI HAUETAN HAINBESTE ESKERTZEN
DIREN TERRAZA HANDIEKIN!
BETE ZURE AMETSA ETA INFORMA ZAITEZ
KONPROMEZURIK GABE!**

%50 SALDUTA





03

ANGEL
GUISASOLA



Webgunea: www.angelguisasola.com

Emaila: angelguisasola@angelguisasola.com

Telefono zenbakia: 609 43 43 77

Facebook: [Angel.guisasola](https://www.facebook.com/Angel.guisasola)

ERRAZ, MERKE ETA BIZI OSORAKO

Urte luzez egurraren munduan aritu da lanean Angel Guisasola eta ondorioz, ondo ezagutzen ditu sektoreko sekretu gehienak. Basoak eta egur motak ondo ezagutzen ditu, eta batez ere, urkiarekin egin izan du lan. Urkiaren kontratxaflatuan bide luzea egin du, Euskal Herriko hainbat bezeroentzat lan eginez. Horregatik erabaki zuen aurrera pausoa eman, eta eraikin modularren munduan murgiltzea. Eraikin modularrak etxebizitzak, umeei zuzendutako jolaslekuak, bungalow-ak, jacuzzi edota saunak, komunak eta abar eraikitze bogan dagoen tekniketako bat da. Azkar muntatzen dira eta bezeroaren nahien arabera moldatu daitezke. Garapen iraunkorrean sinesten du eta beraz, modu jasagarrian ekoiztutako egurrak erabiltzen ditu. Eta horrez gain, irabazien zati bat gobernuz kanpoko erakundeetara bideratu ohi izaten du.

Angel Guisasolak esperientzia zabala du eraikin modularren munduan eta preziorik konpetitiboena eskaintzen ditu. Momentu honetan hainbat proiektu ditu abian, horietako bat eskualdean bertan, Amasako Hika txakolindegian. Mutrikuko Galdona kanpinean ari da ere. Interesa pizten ari da Guisasola eta horren adierazle da Facebook-en lortutakoa; hilabeteen 10.000 lagunek partekatu dute bere proiektua mundu osoan.

ETXEBIZITZAK

Orain arteko esperientzia beste salto bat emateko baliatu nahi du Guisasolak eta etxebizitza modularrak eskaintzen hasiko da.

Hauek ere muntatzeko errazak dira eta merke eskuratu ahal izango dira. *Etxebizitza pasiboak* bezala dira ezagunak eta eraikitzerakoan klima, orientazioa eta energia modu eraginkorrean erabiltzeko gaitasuna hartzen dira kontuan.

04 05

KONPONTZEN

**SALDIAS
MIGUEL**



Tolosa - Beasain - Anoeta

www.saldias-miguel.com



Helbideak: Nafarroa etorbidea, solairuarte, 12, [Tolosa], San Juan kalea, 6 [Anoeta] eta Zazpiturrieta kalea, 1, behea [Beasain]

Telefonoak: 943 65 11 89 [Tolosa], 943 69 80 04 [Anoeta], 943 08 56 00 [Beasain] eta 617 854 629 [Whatsapp-a]

Webgunea: www.saldias-miguel.com

Emaila: saldias@saldias-miguel.com **App-a:** Saldías Miguel [Android eta iOS]

Saldias Miguel aseguru artekaritzak esperientzia zabala du etxe-ko aseguruetan. Etxeak ondo babestuta egoteko behar diren baldintza hoberekin eskaintzen ditu. Guztia preziorik onenean eta zerbitzu hoberekin.

Arrisku guztietatik babesteko aseguruak eskaintzen ditu; erantzukizun zibil familiarra, kristalen apurtzea, lapurreta, sutea, urak eragindako kalteak, alokairu galtzeak... 1998. urtetik hona erreferentziatzeko aseguru artekaritza zerbitzua eskaintzen dute; milaka bezero partikularrek, askotariko profesionalek eta enpresa txikiek eta handik entitatearekin konfiantza dutelarik.

Bulegoak urteko lanegun guztietan zabaltzen dituzte, goizez eta arratsalde, eta Saldias Migueleko 12 profesionalek bezeroen beharrei erantzuteko egiten dute lan. Bezeroen beharrak pertsonalki aztertzen dituzte, eta teknologia berriak (Whatsapp, helbide elektronikoa...) eskaintzeaz gain, Tolosa, Anoeta eta Beasaingo bulegoetan bezeroak artatzen dituzte. Webgunean eta App bidez ere eskaintzen dute zerbitzua.

Bezeroei artekaritza zerbitzua behar bezala emateko, lanak sailka banatzen dituzte; bezero arreta dute, ezbeharrei zuzendutako saila, ekoizpen saila, kontabilitateaz arduratzen dena eta aurrekontuak egiten dituen.



Helbideak: San Juan kalea, 6 [Anoeta] eta Nafarroa etorbidea, solairuarte, 12, [Tolosa]

Telefonoak: 637 846 395 eta 674 798 128 [azken ordukoak]

Emaila: konpontzen@konpontzen.es **Webgunea:** www.konpontzen.es

EGUNERO ETA
24 ORDUZ

KONPONTZEN | GREMIOEN KOORDINAKETA
COORDINACION DE GREMIOS

Konpontzen-ek erabateko lasaitasuna ematea du helburu. 24 orduko zerbitzua da, matxurak eta bestelako ezbeharrek konpontzeko zerbitzu azkarra ematen duena. Gremioak koordinatzen ditu eta asteko 7 egunetan eta 24 orduz eskaintzen du zerbitzua. Etxebizitzetan, komunitateetan edota enpresetan sortu daitezkeen arazoak konpontzen ditu. Eta komunitateko mantetze eta konponketak egiten ditu; teilatuak, fatxadak, patioak, atarietako obrak eta berrikuntzak. Merkataritza eta ostalaritzako lokalak berritzen ditu ere.

Profesional hoberekin egiten du lan, eta preziorik onenak eskaintzen ditu.

Eskaintzen dituen zerbitzuak:

Sarrailagintza
Iturgintza
Pintura
Beiragintza
Zurgintza
Igeltserotza
Berokuntza
Gasa

BETI — GERTU —



— HERRIGUNE — ATSEGINAGOAK — — ERAKITZEKO —

Etorkizuneko hiri eta herriguneak amesteko garaia da. Orain arteko eraikitze moduak alde batera utzi, eta herrigune atseginagoak eraikitze beharraz hitz egiten da. Bide horretan, urbanismo jasangarrian jarri dute askok, jomuga. Urbanismo jasangarriaren ezaugarrietako batzuk 2010. urtean ezarri ziren, Friburgoko Gutuna delakoan. Gutun horren arabera garapen jasangarri bat lortzeko gutxieneko batzuk bete beharko lituzke urbanismo atseginago batek.

Herriguneetan bizi diren pertsonen arteko harremana sustatu beharko litzateke, euren identitatea mantenduz, baina bakoitzaren ezaugarriak eta kultura aniztasuna baztertu gabe. Garraio publikoaren erabilera sustatzeaz ere hitz egiten du, eta baita baliabideen erabilera zentzuzkoaz, eta zentzu horretan herriguneen dentsitatean jartzen du azpimarra. Herriguneek berdeguneak behar dituztela dio, bizilagunen bizi kalitatea bermatzeko ezinbestekoak direla argudiatuz. Gizarte kohesioa eta herritarren arteko harremanak sustatzearen garrantzia nabarmentzen du, eta baita sektore publiko eta pribatuaren eta komunitatearen arteko harremanak sendotzeaz ere.

Ingurune jasangarriagoak egiteko lana hasi besterik ez da egin, eta bide horretan agintarien eta herritarren arteko aliantzak ezinbestekoak dira. Bide horretan mugikortasun jasangarrian eman dira aurrerapauso gehien. Pertsona bakoitzak egiten dituen hautuak garrantzitsuak dira, lanera bizi-

kletan joan ahal da edota erosketak egitera oinez joan, baina ez da nahikoa. Agintarien apustuak ezinbestekoak dira. Hiri eta herriguneetan erabiltzen den garraiobide publikoak ingurumena zaintzea izan behar dute helburuen artean eta horretarako egin beharreko ibilbidea ere hartu behar da kontuan. Orain arteko urbanismo moduetan herritarrek kilometro asko egin behar dituzte lanera, erosketak egitera edota kiroldegira joateko, eta hori da hain zuzen, agintariak kontuan izan behar dutena. Hiri eta herriguneetako bizilagunek ez lituzkete oinarritzko zerbitzuak eskuratzeko joan-etorri luzeak egin behar, eta egin behar izanez gero, horiek garraio publikoan edo modu jasangarrian egiteko moduak egon beharko lirateke.

Europako hiri askotan ematen den modeloa da, Paris edo Bartzelonan, esaterako; oinarritzko zerbitzuak biltzen dituzten herrigune konpaktuak dituzte.

Helsinki edo Los Angeles bezalako hirietan, kontrara, herritarrek kilometro asko egin behar izaten dituzte oinarritzko zerbitzuak izateko, lanera joateko edota eskoletara iristeko.

Etorkizuna berreraikitze norberaren apustu eta hautuak oso garrantzitsuak dira, baina baita eskura jartzen diren baliabideak ere, eta horretan gizarte guztiak eragin behar du modu batera edo bestera etorkizun jasangarria eraikitzen hasteko. Eta horretan urbanismoak ere badu bere garrantzia.

06

ENEKO GARIN
ARKITEKTURA-
ARGAZKILARIA



Messe Basel New Hall, Basilea (Suitza). Arkitektoak: Herzog & de Meuron.

Webgunea: www.enekogarin.com

Telefonoa: 680 87 70 35

Emaila: info@enekogarin.com

ARGAZKIA

ARKITEKTURARI



Saint Benedict Chapel, Sumvitg (Suitza). Arkitektoa: Peter Zumthor.



Arkitektura-argazkilaritza beharrezko tresna da arkitektura munduan zehar zabaltzeko eta erakusteko, eta horretan ari da Eneko Garin arkitektura-argazkilaria. Argazki-erreportajeen bitartez, arkitektoen, barne diseinatzailen, eraikitzaileen eta etxe komertzialen proiektuak dokumentatzeko datza bere lana. Proiektuak bere osotasunean erakustea izaten du helburu, orokortasunetik xehetasunetara, bakoitzak dituen indarguneak azpimarratuta.

Arkitekturak eta argazkilaritzak elkarbanatzen dituzten zenbait kontzeptu lantzen ditu etenga-

be: argia, bolumena, espazioa, proportzioak, armonia, testurak, koloreak... Guzti horien oreka ezinbestekoa da emaitza on bat lortzeko.

Enkarguz egiten dituen lanez gain, bere kabuz proiektu pertsonalak ere burutzen ditu. Horietan, arkitekturako kontzeptuak muturrera eramaten ditu eta abstrakzioarekin gehiago jokatzen du.

Proiektu hauetako argazkiak egokiak izan daitezke barne-dekoraziorako, eta horregatik, formatu eta tamaina ezberdineko kuadroak eskuratzeko aukera ere eskaintzen du.



Autosilo balestra, Lugano (Suitza). Arkitektoa: Carlo Cesarini.

GIZARTEA HOBETZEA, HELBURU

07

Webgunea: www.bertako.eus

Telefonoa: 943 90 34 50

Facebook: BertakoIogogailuak

BERTAKO
IGOGAILUAK

Irurako plazako lokal txikia atzean utzi eta pixkanaka sendotuz joan den enpresa da Bertako Iogogailuak. Bost urte beteko ditu aurki, nahiz eta lantaldearen esperientzia ez den bost urte horietara mugatzen eta denbora gehiago da elkarrekin lan egiten dutela. Bertakon ez dute urteurrena ahazten eta eskerrak emateko baliatu nahi dute. Urte hauetan enpresa sendotzen lagundu duten guztiekin gogoratzen dira. «Oraindik ere gogoan ditugu banan-banan gurekin lanean hasi ziren guztiak. Gaur egun 1.400 igogailu inguru mantentzen ditugu».

Atzera begiratu eta Bertako Iogogailuak eraikitzen lagundu dutenei eskerrak eman nahi dizkiete; «kristoren poza ematen digu hasieratik gudan konfiantza izan duten guztiekin gogoratzea. Gure zerbitzuak ingurukoei aholkatu zituztenak ditugu gogoan, animo eta bultzada eman digutenak, momentu zailetan lagundu digutenak... Bihotz-bihotzez mila esker». «Familia, lagun eta ingurukoen laguntza ere garrantzitsua izan da. Inork ez zuen imajinatu horrelako abentura batek inguruan zer eragin izango zuen. Gauza bat argi badaukagu da gure aldamenean dauzkagun pertsonak, egunerokoan gurekin bizi direnak, erraldoiak direla eta beraien laguntzarik gabe ezinezkoa izango zela horrela jarraitzea; etxera berandu iristea, seme-alabak, familia... Beti egon dira prest gu eta gure enpresa laguntzeko. Gu enpresan ari ginen bitartean, beraien beste lan batzuk egiteko prest egon dira».

Egindako lan guztiari esker, orain igogailuen sektorean benetakoa den konfiantza ematen dela diote Bertakon. «Gizartearen eraldaketa pauso txikiekin egiten da eta duela bost urte bide horretan hasi ginen».

Hortik aurrera etengabeko igoera izan du Bertakok. Enpresa txiki bat kudeatetik ia 20 teknikarik ostaturako lantalde bat osatzera pasa dira. Era berean igogailuen instalazioetan murgildu dira, euren egiteko nagusia mantentze lanak direla ahaztu gabe.

Bertakok 24 orduko zerbitzua eskaintzen du Tolosaldean, mota guztitako abisuentzat, salbuespenik gabe, eta zerbitzu hori eskaintzen duten bakarrak direla esan dute. «Gure bezeroek behar duten momentuan deitu ahal dute laguntza eskatzeko eta berehala jasoko dute arreta, doan. Astelehenetik igandera deitu ahal dute, 24 orduz eskaintzen dugu zerbitzua». Bertakon zerbitzu bikaina eskaintzen dute, eta horregatik egiten dituzte urtebeteko kontratuak,



bezeroa ez lotzeko, aske uzteko baizik: «Bezeroek erabaki behar dute zein zerbitzu kontratatu. Bertakon konfiantza bultzatzen dugu, aske utzi nahi ditugu, eta era horretan ia gure bezero gehienak gurekin jarraitzen dute bost urte eta gero».

Eskaintzen duten arreta preziorik onenean ematen dute. «Sektoreko prezioak gaurko errealitatera hurbiltzen lagundu dugu eta merkeagoa dena hobeto egin daitekeela erakutsi dugu». Hori dela eta, bezeroen zerrenda luzatuz doa eta Gipuzkoan hainbat museotako igogailuen mantentze lanak egiten dituzte, hala nola, Aita Barandiaran museoan eta Arantzazuko museoan. Enpresa, ikastola eta etxejabeen elkarte askorekin egiten dute lan ere.

Euskara da Bertakoren beste ikurretako bat. «Gure apustua da eta oraindik ere hobetzeko asko izan arren, Bai Euskarari lortzeko bidean gara, bigarren aldiz Korrikarekin elkarlanean arituko gara, ezin baitugu ahaztu badatorrela, Euskaraldian murgildu gara ere, Berria eta euskarazko hedabideekin egiten dugu lan...».

Nesken kirola eta kirol egokituak babesten ditu ere Bertakok, eta oro har, gizartea hobetzeko lana egiten duten elkarteak babesten dituzte.

Edonork bere igogailuko mantenurako aurrekontua beharko balu lasai eska dezake 657 52 66 99 edo 943 90 34 50 telefono zenbakietara deituta, eta denbora gutxian izango du eskuan orain daukan zerbitzuarekin konparatu ahal izateko, eta konpromisorik gabe.



Kutxabank SA Kale Nagusia 30-32, 48009 Bilbo, IFK: A95653077. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta. Tomoa: 5226; Liburua: 0; Orria: BI-58729; Folioa: 1; Inskripzioa: 1.

kutxabank HIPOTEKA FINKOA BIZITZERA SARTZEKO ➔ MODUKOA



kutxabank

KUTXABANK HIPOTEKAK.
AURRERA EGITEKO
BEHAR DUZUN GUZTIA.

Berrir
martxan.